

Kiruk Lasar esku artifizial mugikorra diseinatu dugu, material desberdinetakoa. Esku artifizial honen funtzioa burua tente mantentzea da, benetako besoak erabili ordez. Edozein pertsonak eros dezake produktu hau, baina bereziki denbora luzean geldirik egon behar duten pertsonari edo aniztasun funtzionaleko pertsonari zuzenduta dago. Produktuaren egitura alda daiteke produktuaren eroslearen nahiaren arabera. Egitura basikoa, gainazalera eutsiko duen egitura bat, indarra jasango duen zutabe bat eta burua eutsiko duen esku artifiziala.